



Ur handitan murgiltzen.- Donostiako Itsaspeko Zinemaren Zikloaren barnean, zenbait film eta film labur proiektatuko dituzte Lasarte-Orian. Sei lan ikusi zituzten astelehenean Manuel Lekuona kultur etxera gerturatutako herritarrek. Danok Kide Guraso Elkarteak antolatuta, hamargarrenez ekarri dute jaialdia herrira. Besteak beste, David Sanchez Carretero lasarteoriatarren lana ikusteko parada izan zuten bertaratutakoek. Bere 'Motivos para bucear en el Cantábrico' bideoan Kantauri itsasoko urpeko parajeak filmatu zituen. Aurretik, hitz batzuk izan zituen ikusleentzat, eta erabilitako kamera erakutsi zien, bideo txukunak egiteko aparteko materialik behar ez dela frogatu nahian. Sanchez Carreteroren lanaz gain, aipatzekoa da Dany Aldayaren 'Carmen'. Ia 80 urteko granadarraren istorioa du ardatz. 70 inguru zituela hasi zen urpekaritzan, eta lau urtetan 460 saio baino gehiago egin ditu. Zahartzaroan ere pasio berriak aurkitzea eta horiekin gozatzea posible dela erakusten du dokumental laburak. Datorren bi astelehenetan zikloak jarraituko du, eta beste hainbat lan proiektatuko dituzte 19:30ean kultur etxean.

3 UDALBATZARRA Elebeltz Plataformari jarduera-lizentzia eskuratzeko eskaera

Ohiko udalbatzar saioa egin zuten korporazioko hamazazpi zinegotziek astearte arratsaldean. Hainbat gai eduki zituzten mahai gainean, Elebeltz Plataformak aurkeztutako mozioa tarteko. Bestalde, udal gobernuak berritze-lanak egin ditu aretoan; aulki berriak erosi ditu, besteak beste. LOAD eta EH Bilduk ez zituzten erabili.

5 IRAKURLE TXOKOA Bertso afari literarioa antolatu du Irakurle Txokoak, bigarren bez

Aurreko urteko arrakasta ikusita, Irakurle Txokoko kideek aurten ere bertso afari literarioa antolatu dute. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga ariko dira bertsoaren hilaren 27an, Xirimiri elkartearen literatur lanen hitz eta gaiak izango dituzte oinarri bertsoak sortzeko. Salgai daude sarrerak jada, Jalgin eta Ilargin.

5 UDALA Lasarte-Oriaren 30. urteurrenaren harira hainbat ekitaldi

Astelehenean hiru hamarkada beteko dira Lasarte-Oria udalerrira gisa eratu zenetik. Ospakizun ekitaldiak bihar hasiko dira Manuel Lekuona kultur etxean, 18:30ean. Batetik, Julian Sagarriak 1986ko otsailaren 15ean grabatutako irudiekin egindako bideoaz gozatuko dute herritarrek eta, bestetik, 'Gogoratzen duguna gara' diaporamaz.



ZURE BIGARREN
BETAURREKO PROGRESIBOAK

OPARI
VARILUX®

ERABATEKO BABESA

www.multiopticasgipuzkoa.com

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



Gorka Alvarez

Entzun

Bai esan ..." telefonoaren beste aldetik entzuten dugu askotan. " Bai ... entzun mesedez" beharko luke izan. Arrapaladan sartzen gara uste baino gehiagotan, hariaren beste aldean dagoenari ezer esateko aukerarik eman gabe.

Entzun, mesedez entzun. Entzun zuen ondokoei, familia-koei, bikoteei, lagunei, horrenbeste maite ez dituzueni ere, entzun. Baita etsaiei ere; entzun.

Entzun, pertsoneri, animalie, autoei; entzun. Entzun, politikariei bai entzun, baina entzun guztiei. Entzun mota guztietako ideiak dituztenei, guztiek dute zer esana. Entzun. Entzun, hausnartu, erabaki eta gero segi entzuten.

Entzun zure buruari. Benetan entzun. Zer nahi duzun, zer egiten duzun, zer egingo duzun; baina adi entzun, ulertuz, entzundakoan pentsatuz, entzundakoarekin gozatuz, edo sufrituz baina entzun.

Entzun inguratzen zaituen edonori, edozeri, edonola, edozein momentutan baina entzun. Entzun, entzun eta berriz ere entzun.

Entzuten dakitenak bilatzea zaila den gizarte batean bizi gara. Entzutea ongi dago, entzun egin behar da, besteena entzutea garrantzitsua da, irratian entzun dut eta horrelakoak etengabe esaten ditugun arren, entzun, gutxi entzuten dugu. Ez diogu ondokoari behar adinako arretaz entzuten. Benetan, entzuteko gai izango bagina, gaur egungo gaizki ulertu, arazo eta beste hainbat hitz-istripu katramilatsu ekidingo genituzke. Beraz, entzun. Entzundakoari so egin, pentsatu, hausnartu eta behin ondo murtzikatu ostean, esan, hitz egin, erabaki, ekin, inizatiba hartu eta aurrera egin, baina mesedez ikas dezagun entzuten, ikus-entzunezkoan oinarritzen den gizarte honetan denon artean uler gaitezen.

Zorion agurrak



Oier

Zorionak maitia!! Ondo pasa zure 12. urtebetetzean. Milioika muxu etxeko guztien partetik. Maite zaitugu wapeton!!



Aiara

Zorionak printsesa, oso ondo pasa zure laugarren urtebetetzean. Muxu potolo asko familiaren partetik.




Esther eta Judith

Zorionak aita eta ama, amona eta osaba Gonzaloren partez. Oso ondo pasa eta elkarrekin ospatuko dugu. Muxu bat.



Nora

Zorionak Pirata!! Zure 6.urtebetetzean. Muxu handi bat zure famili osoaren partetik.




Nacho

Zorionak Nacho. II muxu potolo familiaren partetik. Ondo pasa!



Naroa

Zorionak printzesa! Disfrutatu zure 12 urteak. Julen, aita eta amaren partez.




Hodei

Zorionak zure 10. urtebetetzean, familia guztia partetik. Hamar muxu erraldoi!



Javier

Zorionak Javier zure urtebetetzean aitona-amonen eta gurasoen partetik. Egun ona pasa!



Suhar

Zorionak Suhar! Dagoeneko 10 urte!! Gero eta handiago gero eta gehiago maite zaitugu. Ama, aita eta Udaneren partez.



Aingeru eta Naiara

Zorionak potxolis!! Espero degu merezi bezain ondo pasatzea! Txokolatzeko muxu erraldoi bat familiaren partez!!!

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Garaje itxia alokatzen da Andatza plazako sarreran, Sasoeta paseoa. Bi kotxerentzako lekua eta garbitokia. 125 euro hilabetean. Marianengatik galdetu, 685 78 08 57.
- Garaje marraduna alokatzen dut Eusko Tren geltokitik gertu. II metro karratu. 687271288

Salerosketa

- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943 37 00 92

Lan-eskaria

- Etxeetan pintura lanak egingo nituzke. Humberto, 631 01 26 30.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta

asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943404015/606661048

- Etxe edo portaletako garbiketa egiten edo pertsona adinduak zaintzen lan egingo nuke. Externa modura. 680 41 49 63.

- Pertsona adinduak etxean edo erresidentzian zaintzeko prest. Humberto, 631 01 26 30.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Oihana Gañan Martin, otsailaren 8an.



Heriotzak

- Manuela Frutos Fernandez, otsailaren 10ean, 86 urte zituela.
- Ignacio Iparragirre Jaurieta, otsailaren 8an, 73 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 12	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 13	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 14	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 15	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 16	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 17	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 18	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Inigo Gonzalez.

txintzarri@txintzarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA



Elebeltz Plataformako zenbait kidek aldarrikapen afixa batzuk erakutsi zituzten astearteko udalbatzarrean, eurek aurkeztutako mozioa eztabaidatua izaten ari zen bitartean.

Jarduera-lizentzia eskuratzeko eskaera Elebeltz Plataformari

Udalbatzarra, Garoñako zentrala ixtearen alde

Udal korporazioak ohiko pleno saioa egin zuen astearte arratsaldean. Berritu egin du aretoa udal gobernuak: hormak margotu ditu, koadroak kendu, kortinak aldatu eta baita zinegotzien aulkiak aldatu ere. Azken horien eresketa-prezioak (800 euro inguru bakoitzak) harrabotsa sortu du azken asteetan, zinegotzi zein herritarren; EH Bildu eta LOAD alderdiek horietan ez esertzea erabaki zuten eta baita erositako tokira bueltatzeko eskatu ere.

TXINTXARRI

Hainbat gai jorratu zituzten astearteko udalbatzarrean korporazioko hamazazpi zinegotziek, Elebeltz Plataformak aurkeztutako mozioa tartean. Testuaren egileen hitzetan, "alkatetzatik egindako hirigintza dekretu bat" erabili du udal gobernuak "erabaki politiko bat" estaltzeko eta "herritar bat mehatxatzeko": "Jesus Zaballosen udaletxe berriak ez ditu Elebeltzen ateak irekita ikusi nahi: ez du nahi kultura herrikoirik, ez espazio liberik".

Udalbatzarrak ez zuen onartu mozioa: lau aldeko bozka (EH Bildu), hiru abstentzio (LOAD) eta hamar kontrako (PSE-EE, EAJ eta PP) jaso zituen testuak.

Udal gobernuaren erantzuna
PSE-EEko zinegotzi Lourdes Acevedok hartu zuen hitza udal gobernuaren izenean hitz egiteko. "Udalak ofizioz esku hartu du gai horretan, Ertzaintzak azaroaren 29ko goizaldean egindako salaketa batetik abiatuta. Hori gertatu zenetik bost astera egin zuen dekretua alkatetzak. Erabaki politikoa izan balitz, askoz ere azkarragoa izango zen prozedura", adierazi zuen.

Era berean, argitu zuen herritarrari bidalitako dekre-

tua "jakinarazpen bat egiteko" izan dela: "Herritar horri azaldu dioguna da Elebeltzek ezin duela jarraitu kontzertuak eta antzekoak egiten lizentziarik gabe".

Jesus Zaballos alkateak ere hitz egin zuen gaiaren inguruan. "Ni ez nago Elebeltzen jardueraren aurka, inondik ere. Ekainaren 13an izendatu ninduten alkate, eta nire asmoa gune hori oztopatzea izango balitz, askoz lehenago egingo nuke".

PP, EAJ eta LOAD alderdiek aipatu zuten ez zutela ikusi "mehatxu edo kriminalizaziorik" alkatearen partetik, afera horri buruzko informazioa kontsultatu ostean.

Elebeltz "ez da arazoa", EH Bilduren hitzetan: "Hondamendi bidean dagoen gune bat garbitu, koloreztatu eta dinamizatu du. Haren jarduerak gure babes osoa dute". LOADeko Arkaitz Nayak ere babesa eman zien ekintzei; EAJko Estitxu Alkorta plataformari iradoki zion Udaleko elkartearen errondan sartzeko.

Beste hainbat gai

CSN Seguritasun Kontseilu Nuklearra Santa Maria de Garoña zentral nuklearra (Burgos) berririkitzeko asmoan dabilela-eta, LOAD alderdiak mozio bat aurkeztu zuen, udalbatzarrari eskatuz erabaki

hori gaitzesteko eta zentrala "behin betiko ixtea" exijitzeko. Mozioa onartua izan zen.

Energiaren gaiarekin lotuta, pobrezia energetikoaren afera jorratuz mozio bat aurkeztu zuen PSE-EEK. Lourdes Acevedok jakinarazi zuenez, udal gobernuak hasi da hitz egiten energia-hornitzaile diren enprekin.

SEAD Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zenetik 40 urte beteko dira otsailaren 27an. Horren harira, Saharako Lagunak taldeak mozio bat eraman zuen batzar-aretoa. Besteak beste, udaletxean Mendebaldeko Saharako bandera bat jarriko da egun horretan. Talde horretako kide Tomas Arrutik urtemuga ospatzeko ekintzetan parte hartzera gonbidatu zituen herritarrak.

Bestalde, Movistar enpresako langileek ekintza berri bat jarriko dute martxan otsailaren 18an, Bilbon: 'Correscales-Korrika'. Besteak beste, haien lan-baldintza prekarioak salatuko dituzte. LOADek eta EH Bilduk eraman zuten gaia udalbatzarrera.

EAJk gardentasunaren inguruko mozio bat aurkeztu zuen, hainbat eskaera zerrendatuz: udalbatzarrak zuzenean ematea 'streaming' bidez, dokumentu guztiak modu ulergarri eta ikusgarri partekatzea, eta abar. Mozioa aho batez onartu zuen udalbatzarrak.

Zeresana eman zuen baita ere batzar-aretoaren itxuraldaketa. Besteak beste, aulkiak aldatu ditu udal gobernuak; eresketa prezioak (800 euro inguru bakoitzak) harrabots handia sortu du herrian; LOAD eta EH Bildu alderdiak ez ziren horietan eseri; dendara bueltatzeko eskatu zuten.

GURE ESKU DAGO

Pausoak zehazten

Astearte arratsaldean Gure Esku Dago ekimeneko hainbat tutore eta saretu bildu ziren Villa Mirentxun.

Bilera honetan nahi duten herritarrek sinatuko duten adierazpen bateratua aztertu zen; hori aurrera eramateko eta jakitera emateko zer egin daitekeen adostu eta hurrengo hilabeteetan emango diren pausoen eta ekintzen berri ere eman zen, hala nola, kriseiluen ekintza.



INAUTERIAK 2017

Gaia erabakitze galdeketa

Inauterien olatua oraintxe pasa da herritik, baina Udaleko Festak batzordea 2017koak prestatzen hasi da jada. Zehaztu beharreko lehenengo gauzetako bat mozorroak prestatzeko gaia izan ohi da eta, helburu horrekin, herritarren etxeetako postontzietan txartel batzuk banatu ditu.

Bertan idatzi beharko dira proposamenak. Ondoren, orria udaletxeko postontzietan botatzeko eskatu du batzordeak. Igandera artekoa da epea. Bozka gehien dituen izango da tematika aukeratua.

"Denborarekin erabaki eta jakinarazi nahi dugu gaia zein izango den, herritarrek eta konpartsek mozorroak eta karrozak prestatzeko nahikoa asti izan dezaten", adierazi dute Jaiak batzordeko kideek.

BIYAK BAT ELKARTEA

Sevillana ikastaroa

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakinarazten die sevillana ikastaro bat martxan jarriko duela.

Informazio gehiago edo ikastaro honetan parte hartu nahi duten kideek egoitzako bulegora hurbildu behar dira astelehene ostiralera 10:30etik 12:30era.



Pantaila akustikoak jartzeko eskaera berria

Lasarte-Oriako alkateak idatziz eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegituren Departamentuari gure udalerria zeharkatzen duen N-1 autobia tartean oraindik jartzeko dauden pantaila akustikoak jar ditzala.

Jesus Zaballos alkateak errepideen azpiegiturek gure udalerria zeharkatzean ateratzen duten zarataren ondoriozko arazo larriengatik kezka agertu du. Izan ere, arazoa pairatzen duten herritarren ezingon handia eragiten baitu.

Lasarte-Oriako Udalarentzat lehen mailakoa den ingurumen-arazo hori murrizte

aldera, alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu dio lehenbailehen har ditzala beharrezko neurri zuzentzaileak, hau da, pantaila akustikoak ipintzea Foru Aldundiak berak egindako azterketan ageri den moduan.

Udalak gogorarazten duenez, aspaldiko eskaera da honakoa. 2009 urtetik hona Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Orokoretan hainbat bilera eta eskaera egin ditu Udalak pantaila akustikoak N-1eko bide osoan zehar jartzeko. Azterketa bat egin zuen Aldundiak baina tarte jakin batzuetan bakarrik jarri ziren pantailak.



Eriz magoak laguntzaileak izan zituen bere magia ikuskizunean. Trukoak egiten ere irakatsi zien txikiei.

Umorea eta magia

Barreterapia saioa antolatu da martxoaren 5ean

Barreak eta lilura nahastu ziren asteartean Amaraun Klubeko Ludotekan. Etxeko txikiek Eriz magoaren ikuskizunaz eta umoreaz gozatu ahal izan zuten. Ez da hau txikiek barre egiteko izango duten aukera bakarra. Izan ere, Amaraun Klubeko txiki eta haien gurasoi zuzendutako barreterapia tailerra antolatu baita.

TXINTXARRI

Artsalde ederra igaro zuten asteartean Amaraun Klubera hurbildu ziren haurtxoek. Eriz magoaren eskutik magiaren nondik norakoak ikasi zituzten.

Adi jarraitu zituzten txiki-txoek magoaren txiste, triki-mailu eta esku jokoak. Laguntzaileak ere izan zituen ohol-tza gainean.

Gainera, truko batzuk nola egin ere irakatsi zien, haien senide eta lagunak aho zaba-

lik uzteko. Guztiak etxean eskura egon daitezkeen material birziklatuekin egiteko modukoak ziren.

Barreterapia saioa

Bestalde, Klubeko lagunek haur eta gurasoei zuzendutako barreterapia tailerra antolatu dute.

Horretan 2008 eta 2010 urte bitarteko haur eta haien gurasoek parte hartu ahalko dute. Antolatzaileek azpimarratu dute beharrezkoa dela haurrak heldu batek lagundua joatea.

Saioa martxoaren 5ean izango da, goizeko 10:30etik 12:30era Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan.

Umorea, baikortasuna, emozioak eta auto-ezagutza landuko dira tailerrean.

Teoria eta praktika nahastuko dira eta taldeko eta bakarkako lanaren bitartez, eguneroko ekintzetan estresa alderatu eta baikortasuna mantentzeko tresnak erakutsiko dira.

Izena ematea ireki da dagoeneko eta doakoa da. Inskripzioa Ttakun kultur elkartearen, aisia@ttakun.eus helbidean edo 943 37 14 48 telefono zenbakian egin daiteke.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hamar bikotek bakarrik parte hartu ahalko dute tailerrean.

Zoru pelbiko ikastaroko izen-ematea ireki da

TXINTXARRI

Otsailaren 5eko TXINTXARRI aldizkarian jakitera eman genuen moduan, Ttakun kultur elkarteak emakume zein gizonei zuzendutako zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa antolatuko du.

Ikuspuntu prebentibo batetik eta diafrea oinarri izanik, pelbis aldea eta zoru pelbikoa ezagutu eta hau nola landu ikasiko da bertan. Eremuaren kontzientzia hartu eta bertan dauden muskulu eta organoen funtzionamendua aztertuko da, gorputza modu kontziente batean ezagutzeak arazoak ekidin baititzaizake.

Era berean, gorputzaren lanketa integrala ere egingo da. Izan ere, pertsona bakoitzak nola sostengatzen den ere kontuan izan behar baita.

Martxora arte

Ikastaroa Gurutze Irazustak eskainiko du eta Zumaburuko Sanatana Dharma yoga eskolan eskainiko da.

Bi egun ezberdin izango dituzte interesatuek zoru pelbikoa zaintzeko tailerra egite-

ko; bata astelehenetan, 10:00etatik 11:30era eta bestea asteartean, 15:30etik 17:00etara.

Guztira 5 saio izango dira. Hau da, astelehena aukartzen dutenek, otsailaren 22tik martxoaren 21era egingo dute tailerra eta asteartekoek, berriz, otsailaren 22tik martxoaren 22ra.

Izena ematea

Ikastaroko matrikula 20 eurokoa da Ttakuneko bazkideentzat; bazkide ez direnek, aldiz, 22 euro ordaindu beharko dituzte.

Izena emateko Ttakun kultur elkartearen bulegora (Geltoki Kalea, 4) hurbildu behar dute interesatuek otsailaren 19a baino lehen.

Ikastarori buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kultura@ttakun.eus edo 695 78 53 89 telefono zenbakian eskainiko da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, taldea osatzeko gutxienez 8 pertsonak eman behar dute izena.

Era berean, jarduera euskaraz dela ere gogorazten dute antolatzaileek.



Margo teknika ezberdinen erakusketa Jalgi Kafe-Antzokian

Herritarrek gozatu dezakete jada Jalgi Kafe Antzokiak otsailerako prestatu duen erakusketarekin. Arantza Agirre artista segurarrak hainbat teknika erabiliz margotutako koadroak jarri ditu ikusgai.

Olioia, margoa, serigrafia, grabatua, akuarela... Hainbat arte diziplina jorratu ditu Arantza Agirre segurarrak, duela hamar urte margolaritzaren munduan murgildu zenetik.

Jalgi Kafe Antzokiko hormetan eskegi ditu horietako zenbait; otsailean zehar edukiko dituzte ikusgai bezero eta arte-zaleek.

Hainbat erakusketa

Hasieran, koadroak lagunartean edo etxean erakustera



Arantza Agirre segurarraren lanak ikusgai daude Jalgi Kafe-antzokian. Teknika erberdinekin margotutako koadroek osatzen dute erakusketa eta otsailean zehar ikusi ahalko dira.

mugatu zen Agirre, baina urteen poderioz margolanak plazaratzea erabaki zuen.

Azkeneko bi urteetan aretoz areto ibili da artista,


haren obrak erakusten: azkena, Donostiako Bulebarrean, pasa den igandean. Hernanin ere bat dauka jarria, zenbait tabernatan erakutsi izan ditu,

Irungo Kutxako sukursal batean, eta abar.

Sentimenduak plazaratu

Zaletasuna eta espresio-bidea

da margolaritza Arantza Agirrerentzat: haren burua ezagutzera eraman du, eta barneko sentimenduak plazaratzeko bidelagun izan du baita ere.



Bertsoa eta literatura nahastuz

Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga izango dira bertso afari berezian

Irakurle txokoko lagunek aurten ere bertso afari literario antolatu dute Xirimirin otsailaren 27an. Bertsoak eta literatura uztartuko dituen ekintza honetan, Danele Sarriugarte txoko gidaria eta idazlea izango da gai jartzaile. Txartelak dagoeneko salgai daude.

TXINTXARRI

Harkaitz Cano, Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Igor Elortza izan ziren iaz Irakurle Txokoko antolatutako lehen bertso afari literarioko protagonistak. Eki-men honek izan zuen arrakasta ikusirik, Irakurle Txokoko kideek bigarren edizioa antolatu dute.

Afari berezi honen helburua, iaz bezala, Irakurle Txokoa herrian ezagunagoa egitea da, baita ekimena diruz laguntzea ere.

Saioa

Otsailaren 27an, 21:00etatik aurrera, literatura lanen hitz eta

gaiak berriro ere bertsoak sortzeko oinarri izango dira Xirimiri elkartearen.

Erronka honi hiru bertsolarik egingo diote aurre. Ane Labaka herritarrak berriro ere parte hartuko du ekintzan, baina oraingoan Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga izango ditu lagun.

Testuak irakurtzen eta gaiak jartzen Irakurle Txokoko gidaria Danele Sarriugarte izango da.

Menu gozoa

Baina bertsoa eta literaturaz gozatu baino lehen, bertso afariko menu gozoa dastatuko dute Xirimiri elkartearen biltzen diren lagunek.



Unai Iturriagak, Maialen Lujanbiok eta Ane Labakak Danele Sarriugarteren gaiei aurre egin beharko diete.

Txanpinoiak saltsan, kalabaza krema sesamoarekin, oilaskoa garagardotan hornigaiarekin eta txokolate beroarekin betetako Petit Suisseak jango dituzte.

Txartelak

Bertso afari literarioko txartelak dagoeneko eskuragarri daude Jalgi Kafe-antzoki eta Ilargi tabernan.

Ekitaldiaz gozatzeko langabetuek eta ikasleek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, 20 euro.

Txokoko kideek ohartarazten dutenez, horiek eskuratzeko azken eguna otsailaren 24a, asteazkena izango da.

Asteartean hitzordua

Baina bertso saio berezi honen aurretik, Irakurle txokoko kideek

hilabeteroko hitzordua dute otsailaren 16an, asteartean, 18:30ean Manuel Lekuona kultur etxean.

Oraingoan, Katixa Agirreren 'Atertu arte itxaron' liburua aztertuko dute. Euskal Herrian zehar egindako kotxe bidai baten kontakizuna da. Gune eta historiako gertakari ezberdinak erreparatzen ditu eta gogoetarako tarte ere badute pertsonaiek.

Lasarte-Oria eratzearen 30. urteurrena ospatuko da

Otsailaren 15ean, astelehenez, Lasarte-Oriako udalerrria eratu zeneko 30. urteurrena ospatzen da. Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu hori ospatzeko.

Lehena larunbat honetan egingo da Manuel Lekuona kultur etxean.

Ekitaldiak bi zati izango ditu. Lehenik Julian Sagardiak 1986ko otsailaren 15ean grabatutako irudiekin egindako bideoa ikusi ahalko da.

Ondoren, Zero Sette akordeo orkestrak eta Julianek berak prestatutako 'Gogoratzen duguna gara' diaporama musikatua berriz ikusteko aukera izango da eta Lasarte-Oria zenbat aldatu den ikusi ahal izango dute bertaratzen direnek.



Lehen batzarra amaitu ostean, Lasarte-Oriako lehen udalbatzarkideak Ama Brigitarren komentuko kaperan egin zuten argazkia.

Zero Sette akordeo orkestrako kideek azaldu digutenez, "herritar asko geratu zen diaporama ikusi nahian eta Udalak urteurrenaren harira eskaintzeko eskatu zigun".

Lasarte-Oriako argazki zaharrez eta gaur egungoez osatutako erakustaldia da. Herriko kale, plaza, etxe, base-ri, saltoki eta leku adierazgarri asko, baita jaiak ere daude ber-

tan islatuak. Eskusoinu doinuek zuzenean lagunduko dituzte irudiak, kantu ezagunak eta modernoak eta batzuk Lasarte-Oriarekin lotuak nahastuko dituzte emanaldian.

Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapenak Manuel Lekuonan eskuratu behar dira gaur 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara.

Eraketa eguna

Bestalde, astelehenean bertan, bi ekintza antolatu ditu.

Lasarte-Oriako udalerrriaren lehen udalbatzarra Ama Brigitarren komentuko kaperan egin zen. Hori dela eta, Ama Brigitarren komentuan 11:00etako mezara hurbilduko dira udal ordezkariak.

12:00etan, berriz, Udala eratzeko osoko batzarraren akta irakurriko da batzar-aretoan.

Lasarte-Oriako Udalak herritarrak ekintza hauetan parte hartzera gonbidatzen ditu.

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Ordu-tegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

San Valentin
honetan, gutizia
oparitu

Zatoz eta opari txartela prestatuko dizugu ezusteko polit bat eman diezaiozun zure bikoteari:

- Zure aurrekontura egokitutako opari-txartela egingo dugu
- Tratamenduak, estetika zerbitzuak... edo berak aukeratu dezala!
- Estetika zerbitzu mistoak eskaintzen ditugu

Manikura eta pedikura - Makillajea - Aurpegi eta gorputz tratamenduak - Mola ezbernetako depilazioak - Solariuma - Betelehen tindatzea eta permanentea - ...

1984tik Lasarte-Orian

Yoga

Zer ikasiko duzu?

- Gorputza, burua eta emozioak malgutzen
- Egokitasun handiagoz moldatzen
- Zaindu zaiten integralki

- Hobeto kontzentratzen
- Hobeto arnasten
- Gehiago gozatzeko
- Meditatzen
- Izaten

Zumaburu kalea 12, behea - 629 836 090 (Juanjo)
www.yogalasarate.org

LABURRAK.-

Lidertza sendotu du Babyauto Zarautzek

Ohorezko B mailako sailkapenaren buruan darrai Babyauto Zarautz taldeak, are alde gehiagoz, gainera. Aparejadores de Burgos bigarren sailkatua hartu zuen mendean pasa den larunbatean Zarautzko Asti zelaian, 20-18.

Primeran ekin zion norgehiagokari etxeko taldeak. Lehen minutuetan jarri zen aurretik markagailuan, Lukas Panichelliren entsegu bati esker. Berehala aldatu zen partidaren norabidea ordea, eta kanpoko taldeak buelta eman zion txanponari. Gauzak horrela, 7-18ko markagailuarekin joan ziren bi taldeak atsendaldira. Errugbian ederki jokatzeko du Babyauto Zarautzek, eta sufrizten ere ongi asko daki. Horregatik da horren zaila taldea mendean hartzea. Larunbatean berriro erakutsi zuten hori: zale zarautzar eta lasarteoriarren animoek hauspotuta, markagailua irauli eta garaipena erdietsi zuten, 20-18. Ander eta Xabier Rekondo anaiek hasieratik jokatu zuten. David Vegak berriz, ez zuen minuturik izan larunbatean.



Aizpea Arroyo gimnasta bigarren, Eskolarteko A eta Amateur kategoriako lehen kanporaketan

LOKEko gimnastek Eskolarteko A eta Amateur kategorien lehenengo kanporaketa jokatu zuten pasa den asteburuan, Azkoitin. Maila txukuna eman zuten denek, baina bereziki aipatzekoa da Aizpea Arroyok eskuratutako bigarren postua, Senior A mailan, uztaiekin. Kategoria horretan 13. izan zen Garazi Gomez. Jubenil mailan, bakarka aritu zen lehen aldiz Alazne Gonzalez, mazekin, 9. postuan sailkatuz. Angely Gonzalez kadeteak berriz, 25. postua erdietsi zuten.

Taldeakako txapelketan aritu ziren LOKEko gimnasta jubencil eta kadeteak. Mazekin aritu ziren lehenengoak, eta 4. izan ziren. Bigarrenak berriz, uztai eta pilotekin aritu ziren, 11. geratuz.

Fermin Baldak zilarrezko domina jantzi zuen Euskadiko junior txapelketan, Gasteizen

LOKEko judoek emaitza bikainak erdiesten jarraitzen dute Euskal Herri osoko tatamietan. Pasa den asteburuan Gasteizen aritu ziren junior mailakoak. Maila bikaina eman zuten borrokaldi guztietan: Fermin Balda herritarrek zilarrezko domina kolokatu zuen eta baita Eneko Eizagirre oriotarrak ere.

Jon Herrerok berriz, brontzezko domina kolokatu zuen txapelketan. Gorka Aristegi prestatzailea oso gustura dago haren mutilek Gasteizen emandako mailarekin: "Kalitate handiko borrokaldiak egin zituzten denek", azpimarratzen du. Bihar Monzalbarban (Zaragoza) konpetituko dute kadeteek.



PILOTA.-

Beste pauso bat

Bihar debutatuko dute Promozioko binakako txapelketan Arteaga II.ak eta Imazek, Iruñeko Labriten, 17:45ean

Bada hilabete Arteaga II.a pilotariak profesional mailan debuta egin zuenetik. Bihar beste erronka bati ekingo dio, haren ibilbide oraindik laburrean beste pauso bat emanez: Promozioko binakako txapelketa jokatzeko hasiko da, Ander Imaz oiartzuarra bidelagun. Tainta eta Galarza nafarrak izango dituzte aurkari.

IÑIGO GONZALEZ

Txapelketa oso orekatua" aurreikusten du Arteaga II.a gazteak. Helburuari buruz galdetuta, argi erantzuten du: "Ander Imazek eta biok daukagun maila erakutsi nahi dugu". Lehenengo suzko proba biharkoa izango da: Tainta eta Ladis Galarzaren kontra neurtuko ditu indarrak bikote gipuzkoarrak, Iruñeko Labrit pilotalekuan, 17:45ean.

Zer gorputzaldirekin ailegatzeko zara txapelketara?

Gero eta hobeto jokatzeko ari naiz azkenaldian, konfiantza gehiagorekin. Nire lehenengo lau norgehiagoketan emandako mailarekin ez nago gustura, baina urtarrila amaieran Idiazabalaren irabazteak askatu egin nau eta goraka noa. Azkeneko partida, Tolosakoa, galdu egin nuen, baina sentazio pertsonalak onak izan ziren, amaierako tantoak kenduta.



Arteaga II.ak eta Ander Imazek (atzean, eskubian) bihar hasiko dute txapelketa.

Ander Imaz oiartzuarra izango duzu bidelagun.

Gustura gaude biok, lagunak gara eta askotan jokatu dugu afizionatu mailan, profesionalen ere bai pare bat aldiz. Kontziente gara erronka zaila izango dela, orain dela gutxi debutatu baitugu, baina gure maila emanez gero, argi daukagu edonori egin diezaioketugula aurre.

Lehenengo geltokia, Iruñeko Labrit frontoia. Aurkariak, Tainta eta Galarza.

Partida gogorra izango da; biek urte dezente daramatzate jada profesional mailan. Esperientzia handiko pilotariak dira, oso ongi jokatu beharko dugu irabazi ahal izateko.

Txapela jantzeko faborito argirik ikusten al duzu?

Egia esan, txapelketa oso orekatua dagoela esango nuke, bikote guztiok dugula maila

paretsua baitaukagu. Arierio denak izango dira gogorrak.

Hilabete pasatxo da profesionalen hasi zinenetik. Zer balantze egiten duzu?

Hasiera ez da izan nik espero bezain samurra, batez ere emaitzei dagokienean. Urduri jokatu izan dut behin baino gehiagotan. Bestalde, azkenaldian gero eta gusturago sentitzen ari naiz kantxan, askeago, eta nire jokoa egiteko konfiantza gehiagorekin. Dinamika horretan jarraitzea espero dut asteotan.

Orain arte jokatu dituzun norgehiagoketan pilotalekuko harmailek urdin kolorea hartu dute.

Oso eskertzekoak dira herritarrek partidara ematen dizkidaten animoak. Kantxara irten eta zale horiek denak ikustek asko poztzen nau. Bihar ere, etortzera animatzen ditut.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 13

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Antiguoko KE
Infantilen Ohorezko maila,
txapelkunen fasea, 2. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Hernani CD
Kadeteen Igo maila, Kopa,
5. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Iluari FK
Erregionalen Igo maila, Kopa,
7. jardunaldia.

Usabal, Tolosa, 17:30ean

Tolosa CF - Ostadar SKT
Jubenilen Igo maila, igoera fasea,
7. jardunaldia.

IGERIKETA

Larunbata 13

Udal Kiroldagiko igerilekua, 16:00etan

Buruntzaldea IKTKo benjaminak eta
alebinek 50 metroko sailkapen
serieak jokatu dituzte.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 12

Herriko areto-futbol txapelketa,
20. jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

El Punto - Txindoki

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Reformas Lagunak - Txoko

Udal Kiroldagia, 20:55ean

ISU Leihoak - Lauburu KE Ibarra
Gipuzkoako Igo maila,
17. jardunaldia.

Larunbata 13

Herriko areto-futbol txapelketa

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Ilargi - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Trumoi - Izkiña

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Indaux - Kattagorri Insausti

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Viña del Mar - TSST

Aldiri kiroldegia, Urretxu, 11:00etan

Goierri KE - Lasarte Kafe Bar
Gipuzkoako jubencil maila,
13. jardunaldia.

Mons kiroldegia, Donostia, 12:15ean

Internacional House Made -
Ostadar Antonio Aroztegia
3. Nazional maila,
16. jardunaldia.

Igandea 14

Udal Kiroldagia, 9:30ean

Cecilia Ostadar - Laskorain KE
Gipuzkoako II. maila, 17. jardunaldia.

SASKIBALOA

Larunbata 13

Antzizar kiroldegia, Beasain, 12:30ean

Arri BKL - Ostadar SKT
Errendimenduko Kadete neskak,
bigarren fasea, 3. jardunaldia.

Udal kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Getxo SB
Junior neskak, Euskal Liga, 3. jard.

Udal Kiroldagia, 18:00etan

Ostadar SKT - Summa Aldapeta
Partizipazioko junior neskak,
bigarren fasea, Igo jardunaldia.

Igandea 14

Udal Kiroldagia, 11:00etan

Ostadar SKT - Kostkas KE
Seniorren 3. probintzial maila,
bigarren fasea, 5. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 12

Udalekoa, Ilkaztegieta, 18:45ean

Intxurre - Intza
Igo mailako jubencilak, Udaberrikoa.

Agustina Otaola, Oreta, 20:30ean

EPL- Intza
2. mailako seniorrak, Udaberrikoa.

Larunbata 13

Udalekoa, Astigarraga, 10:15ean

Mundarro - Intza
Igo mailako seniorrak, Udaberrikoa.

Agenda

Gaur, ostirala, 22:30ean, Jalgi Kafe Antzokia



Liher taldea eta Nabarro ta Laura

#100KA proiektuari esker, Liher taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Lide Hernando abeslariak eta bere taldeak 'Arrazoi gutxi, denbora asko' laneko doinuak eskainiko dituzte. Aurretik, motoreak martxan jartzeko, Nabarro ta Lauraren umore eta dantza ikuskizuna izango da. Kultura alternatiba ekimenak antolatutako ekintza da, Donostia 2016 Energia olatuak programaren laguntzaz. Sarrera doan.

Lasarte-Oria

Lasarte-Oriatik Mundura

VILLA MIRENTXU

Gaur, ostirala, 19:30ean

Hitzaldi zikloko bigarren saioa. Oihan Agirretxek Palestinan brigadista lana egiten bizitako azalduko du 'Palestina jo puntuan' hitzaldian.



OKENDO PLAZA

Igandea, 12:00etan

Palestinaren elkartasun ikur izango den olibondoa landatzeko irteera egingo da.

30. Urteurrena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 18:30ean

Lasarte-Oria udalerrri gisa eratu zeneko 30. urteurrena ospatuko da. Lehenik Julian Sagardiaren 'Lasarte 15 de Febrero de 1986' bideoa eskainiko da. Era berean, 'Gogoratzen duguna gara' diaporama musikatua berriro ikusteko aukera izango da. Julian Sagardiaren irudiei, Zero Sette akordeoi orkestrako lagunek musika jarriko diete.



Gonbidapena behar da. Otsailaren 8tik 14ra, 10:00etatik 13:00etara eta

17:00etatik 20:00etara jaso ahalko dira gonbidapenak Manuel Lekuona kultur etxean.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Carlitos y Snoopy: La película de Peanuts' animazio filmaz gozatu ahalko da. Sarrera, 3,80 euro.



Igandea, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'La quinta ola' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Bertsolaritza

ABEND KAFE ANTZOKIA

Igandea, 19:00etan

Unai Muñoa herritarraren eta Ander Lizarralderen eskutik, 'Ez gara Palestinaz ari' emanaldia. Xumela koruaren 10. urteurrenaren ekintzen barruan. Sarrera, 5 euro. Abend Kafe antzokian eta Jalgin eskuragarri.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Otsailean zehar

Arantza Agirre segurarraren olio lanak ikusgai izango dira.

Itsaspeko Zinema Zikloa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 15, 19:30ean

Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren laguntzaz Itsaspeko zinema zikloa antolatzen du. Saioan, 3 film labur eta film luze bat ikusiko dira. Horien artean euskaraz eskainiko den 'Ruta Molucas'.

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 16, 18:30ean

Irakurle Txokoko kideek Danele Sarriugarte idazlearen laguntzaz Katixa Agirrerren 'Atertu arte itxaron' liburua aztertuko dute.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 17, 18:30ean

ADAHIGI elkarteak arreta falta eta hiperaktibitatearen nahasteari buruzko hitzaldia eskainiko du.

Herritarren txokoa

Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasoeta ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Eskutitza

Auzokonposatze-programako zabor-tasaren %20ko hobaria berrikusteko eskaera

Jaun-andre agurgarriak

Lasarte-Oriako Udalak, PSEren eta EAJren botoekin, bertan behera utzi du auzokonposatze-programan parte hartzen dugun familiok zabor-tasan genuen %20ko hobari edo deskontua. Idatzi hau izenpetzen dugunok deitoratzen dugu bertan behera utzi izana azken urteotan zabor-tasaren bidez birziklatzea sustatzeko hartutako neurri bakarra. Eta udal taldeei espresuki eskatzen diegu erabakia berrikusteko.

Deskontua kendu izanagatik, seguru gaude programan parte hartzen dugun 90 familietatik bakar batek ere ez diola konpostatzeari utziko (are gehiago, gutako askok deskontua zegoela ere ez genekien kendu duten arte). Baina erabaki honetaz interpretazio bakarra egin daiteke: Udalak ez du aintzat hartzen, edo gutxiesten du, edo mespretxatzen du etxeko zaborrak modu ekologikoagoan kudeatzeko egiten dugun ahalegina.

Dena dela, gure ahalegina aintzat ez hartzea hutsaren hurrengo da erabaki

honek etorkizunari begira izan ditzaiken ondorio latzekin alderatuta. Izan ere, zabor-tasetan hobarien bidez birziklatzea sustatzea ez den guztia gaur egun indarrean dagoen tarifa finkoaren alde egitea da. Eta tarifa finkoa, anti-ekologikoa izateaz gain, guztiz bidegabea da, guztiz injustua da.

Bidegabea eta zentzugabea delako etxeko zaborren %90 gaika biltzen dutenek eta den-dena nahastuta botatzen dutenek tasa berdina ordaintzea. Zenbat eta zabor gutxiago gaika bildu, orduan eta tratamendu garestiagoak behar dira. Tarifa finkoaren bidez, arduraz jokatzeko dutenak, esfortzu handiagoa egiteaz gain, beren diruarekin finantzatzen ari dira batere birziklatzen ez dutenen axolagabekeria. Beraz, Udala, auzokonposatze hoberiari kenduz eta tarifa finkoa indartzuz, axolagabeak saritzen eta birziklatzaileak zigortzen ari da, nabarmen zigortzen, gainera.

Hau ez da gure burutazio bat. PIGRUGek ere, erraustegia aurreikusten duen planak berak, alegia, honela dio:

"Hondakinak sortzea zigortuko duten tasa aldakor eta mailakatuak ezarriko dira". Bada, orain dela gutxi, Lasarteko Udalak, PSE, EAJ eta PPren botoekin, PIGRUGen aldeko mozio bat onartu du. Ez dirudi oso koherentea denik horren alde egitea (nahiko modu sutsuan egin ere, gainera) eta, halaber, plan horrek tasen alorrean markatutako bidean egin den urrats bakarra, auzokonpostatzeko %20ko deskontua, bertan behera uztea.

Garbi utzi nahi dugu auzi hau alderdien arteko ohiko eztabaiden gainetik dagoela. Horra Donostia, non PSEk eta EAJk orain dela gutxi ontzat eman duten PSEk eta Bilduk 5. edukiontzia erabiltzaileentzat hitzartutako %15eko deskontua.

Behar bestetan errepikatuko dugu: Udalak hartu duen erabakia, guri kalte egiteaz gain, oso bide txarra seinatzen du etorkizunari begira; erabaki horretan atzera egitea espero dugu.

Jaione Txapartegi, Haizea Elizondo, Ane Labaka, Martin Anso eta beste 22 sinadura gehiago

Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus



Igandean arratsaldeko 19:00tan Abend kafe antzokian gozatu ahal izango da ikuskizunaz.

Barrenak askatuz

'Ez gara Palestinaz ari' ikuskizuna igandean

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak barruko sentimenduak askatuko dituzte 'Ez gara Palestinaz ari' emanaldian. Abend Kafe Antzokian ikusi eta entzun ahal izango da igande honetan, 19:00etatik aurrera. Xumela Abesbatzak antolatutako ekitaldia da, hamargarren urteurrenerako pentsatutako beste askoren moduan.

TXINTXARRI

Euskaldunak "abilak" omen gara filosofia, politika eta gisa horretako gaiak jorrazteko orduan, Unai Muñoaren ustez. Barneko sentimenduekin zerikusia duten beste batzuk jorrazteko orduan, aldiz, "gabezia handiagoak" izaten ditugu, lasarteoriarrak adierazi duenez.

"Beti bizi gara kanpora begira, Palestinan, Sirian edota Euskal Herrian bertan gertatzen direnei buruz hitz egiten dugu etengabe, baina

gutxitan jartzen gara ispiluaren aurrean gu geu aztertzen", dio Muñoak.

Hori da bi bertsolariak proposatutako ariketa. Norbere burua ispiluaren aurrean ipintzea eta barrenak askatzea.

Orain arte ikuskizun andana eskaini dituzte Euskal Herriko txoko askotan. Izan ere, badira hiru urte Andoaingo Bastero kultur etxean aurrestreinatu zutela.

Azaldutenez, ikusle asko "identifikatuta" sentitu dira adierazitakoarekin.

Azken batean, pertsonak geure artean "desberdinak" izan arren, "kezka beretsuek asaldatzen gaituztela" uste dute emanaldiaren egileek.

Xumelaren laguntza

Hamar urte bete ditu aurten Xumela Abesbatzak, eta horiek ospatzeko asmotan zenbait ekintza antolatu dituzte. Horietako bat, hau.

Igandeko emanaldian Muñoarekin eta Lizarralderekin bat egingo dute eszenatikian, eta pasarte bat abestuko dute batera. DBH Institutuko musika gelan izan ziren entseatzen lehengo asteko astelehenean.

Igande arratsalderako plana egin nahi duenak sarreak eskuragarri ditu oraindik Abend eta Jalgi kafe antzokietan, bost eurotan.

Palestina jo puntuan arratsaldean

TXINTXARRI

Palestina izango du hizpide Oihan Agirretxek gaur 19:30ean Villa Mirentxun. 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' hitzaldi zikloko bigarren ekitaldia izango da, eta lasarteoriatar baten eskutik etorriko den lehena.

Agirretxe abuztuan izan zen brigadista moduan Palestinan. Bizitako esperientziak partekatuko ditu bertaratutakoekin, 'Palestina, jo puntuan' izeneko hitzaldiarekin.

Aurkezpenean azaldu zuenez, palestinarrek euren egoera "ikusiarazi" nahi dute beste herri batzuetan. Beraz, bisitan joaten diren pertsonak gonbidatzen dituzte ikusitakoa ezagutaraztea.

Olibondoa landatu

Palestinari zuzendutako ziklo honi jarraipena emateko beste ekintza bat egiteko asmoa dute igandean.

Okendo plazatik abiatuko dira goizeko 12:00etan eta olibondoa landatuko dute.

Erabat sinbolikoa den

zuhaitza da olibondoa. Dioteenez, lehenengo olibondoak Palestinan topatu ziren, eta bertako biztanleentzako ezinbestekoa da olibaren ekoizpena biziraupenerako.

Halaber, erresistentzia baketsuaren sinbolo ere badira. Nekazal guneeetan jasaten dituzten erasoetan olibondoak suntsitzen dituzte.

Palestinatar batek 'Via Palestina' izeneko dokumentalean dioenez, "suntsitzen duten zuhaitz bakoitzeko, hamar landatuko ditugu guk". Beraz, olibondoak landatzea kolonizazioari aurre egiteko bidea ere bihurtu da.

Hurrena, Kuba

Hilaren 24an 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' zikloko fokoak Palestinatik Kubara bidaiatuko du.

Egun horretan, udaran han egondako herritar talde batek argazki diaporama egingo du Xirimiri Elkartean, merienda kubatarraren laguntzaz. 26an, berriz, EHUko irakasle den Luisi Uharterek Kubako egorri buruzko hitzaldia emanango du kultur etxean.



Hizkuntzen elkarbizitza aztergai

Lasarte-Oriako Udalak Azti-ker enpresaren laguntzaz herriaren aniztasuna landu eta elkarbizitza sustatze aldera Anitzen Sarea ekimena du martxan.

Honen baitan, hainbat ekintza burutzen dira urtean zehar, asteazkenean aniztasuna eta hizkuntza izan ziren hizpide.

Dinamiken bidez lana

Tailer modura egin zen lan eta bi zati izan zituen saioak.

Batetik Banaiz Bagarako Petra Elserrekin hainbat dinamika egin ziren hurbildu zirenekin.

Lehenik, zeiniek duten garrantzia ohartarazteko lan egin zen. Guztiek haien burua aurkeztu zuten haien ama hizkuntzan eta zeinuak



Hainbat herritar bildu ziren hizkuntza eta elkarbizitza buruzko gogoeta egiteko.

ere erabili zituzten. Herritarretako batek bere ama hizkuntzan, arabieraz mintzatu zitzaizen zeinuak erabiliz eta jarraian galdera batzuk egin

zitzaizen ulertu zutena jakiteko.

Ostean, arabieraz hainbat esaldi ikasi eta erabili zituzten dinamika batean.

Lasarte-Oriako hainbat arlori buruz eta gure herrian bakoitzak bere burua non kokatzen duen ere galdetu zitzaizen.

Era berean, euskaraz edo gazteleraz hitz egiten nola sentitzen diren ere partekatu zuten guztiek.

Lanketa hauen guztien helburua bakoitzak beste hizkuntzekiko duen jarrera azalratzea izan zen.

Gogoeta

Dinamika guztiak amaitzean, gogoetarako tarte ireki zen.

Aztikerreko lagunek jatorri ezberdinetako herritarrek batzean zein hizkuntza erabili behar zen jarri zuten mahai gainean.

Herritarrek haien ekarpenak egin zituzten eta eztabaidatu ostean, guztien eskubideak bermatuz egokiena bilerak elebietan egitea izango litzatekeela adostu zen.